

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure proiektuan bezeroekin harremanak funtsezkoak dira, bai zerbitzua ezagutarazteko bai bezeroak mantentzeko. Bezero nagusiak ikastolako familiak eta ikasle txikiagoak dira.

Bezero berriak erakartzea

- Ikastolako barne-komunikazioa erabiliz: mezu elektronikoak gurasoei, kartelak eta ahoz aho.
- Merendolen kasuan, maila bakoitzeko ikasle guztiei gonbidapena bidaltzea.
- Larunbatetako tabernan, eskola kirolera etortzen diren familiei zuzenean eskaintza egitea.

Bezeroak mantentzea eta haztea

- Tratu hurbila eta pertsonala eskaintzea, ikasleek zuzenean zerbitzatuta.
- Prezio egokiak eta produktu erakargarriak eskaintzea.
- Zerbitzuaren kalitatea zaintzea (ordutegia, garbitasuna, antolaketa).
- Esperientzia atsegina sortzea, berriro etortzeko gogoia izateko.

Harreman mota

Gure bezeroekin harremanak **konbinatuak** izango dira:

- **Laguntza pertsonala:** merendoletan eta tabernan, ikasleek aurrez aurreko arreta eskainiko dute.
- **Komunikazio digitala:** posta elektronikoaren bidez informazioa eta antolaketa kudeatzeko.
- **Zerbitzu zuzena:** bezeroek bertan erosi eta kontsumitzeko aukera izango dute.

Bezeroekin harreman mota honek konfiantza sortzen du, diru-sarrerak handitzen laguntzen du eta proiektuaren irudi positiboa sendotzen du.